

A D A B A K I A K

Galderantzunak

A.'tar B.—Ba-aldakigun *manchismoa* zer dan? Bai, noski. Gure jakinduriak bazterrik ezpaitu...

Manchismo-edo dalako ori txosperriko pintura-eskola bat da, ta Ipar-Amerika'n, azkeneko gerratean, jaio zan. Wols, Pollok eta De Kooning margolariek sortu omen zuten.

Oraindik-orain, Antonio Saura pintatzalleak onela zion: "*El manchismo*... participa del arte abstracto en su vertiente expresionista, de la desintegración de la forma y de los hallazgos del subconsciente".

Argi dago?

* * *

Oriotar bat.—Egia esan, guk badegu, Donostia'ko estropadei buruz, geren iritzi-zeatza. Baña, gai au —alegia, zer izango litza-ken obe: bira batean ala irutan jokatzea— labain-samarra ote dan, derizkiogu.

Dana dala, gu lege-zar aldekoak arlo guzietan edo geientsu-
netan gerala aitortzea, aitortzen degun bezala, gaurkoz naikoa izango dala uste degu...

* * *

Ezkontza-kontu ta diru-arloak Atal onezaz landara gelditzen dira. Baña, tira, erantzuera bidez, aldatuko dizkitzugu ondoren. zure galderetan erabiltzen dezun gaiari egoki dagozkan bertso zar-jator batzuek.

Soñian euki arren
jantzi sedazkua,
erakusten ez ba-da
diru-dun zakua,
kontuz egin, mutillok,
ezkontza-tratua,
sartu ez dagitzuen
erbitzat katua.